



2020ko uztaila

## **COVID-19AREN AURREAN, ESPAZIO PUBLIKOAN PRESAZ ESKU HARTU, MUGIKORTASUN AKTIBOA ERRAZTEKO ETA HIRI OSASUNGARRI, JASANGARRI ETA SEGURUAGOETARA AURRERATZEKO**

Osasun-pandemia mundua astintzen ari da, eta hiriak presaz egokitu behar izan dira pertsonen joan-etorri seguruak izan ditzaten. Pertsonen arteko distantziak askotariko garraiobideen mugikortasuna baldintzatuko du, direla kolektiboak, direla banakakoak. Oinez joatean, osasun-segurtasuna dela medio, urrundu egin da elkarren artean izan beharreko distantzia, eta horrek nabarmen utzi du bizikletak garrantzi handia duela hiri barruko joan-etorrietan, ibilgailu efiziente eta seguru gisa. Pandemia hasi zenetik, munduko hainbat hiri presaz esku hartzen hasi ziren bide-sarean zein espazio publikoan, mugikortasun aktibo, seguru eta osasungarria errazteko. Behin-behineko esku-hartzeak izan ziren, baina askotan agerian geratzen ari da efizienteak direla eta, beraz, iraunkorrek direla hiriak klimara egokitzeko zein jasangarritasunerako.

Ziklotekan, atal berezi bat sortu dugu eta, bertan, gaurdaino, 120 dokumentutik gora jaso ditugu hiri barruko mugikortasunari eta era horretako esku-hartzeei lotuta, askotariko lekuetan proposatu edo egindakoak.



Argazkia: Logroñoeko udala / Rafa Lafuente

## DOKUMENTUEN AUKERAKETA

Gaur egun, 4.000 dokumentutik gora bilduta ditugu gure datu-basean. Jarraian, COVID-19aren aurrean hiri-mugikortasunarekin erlazioatutako egokitzapen-neurriak jasotzen dituzten dokumentu batzuen erreferentzia labur bat:



### Todo lo que aporta la bici ante una crisis como la del coronavirus

Esther Anaya Boig, Londreseko Imperial Collegeko ikertzailea. 2020ko martxoa


Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko ohar bat, non Estherrek "persona irakurleen irudimena hegan egitera zirikatzeko duen, gure leihotatik at, elkarrekin pedalaritza eraginez kale lasai eta atseginetan, aire garbiak arnastuz, birus-pandemietatik libre. Irudimena eta ametsak aldaketaren akuilu dira, baina bakarrik ekintzarako erabiltzen baditugu funtzionatzen dute. Kontuz amesten dugunarekin, egia bihur baitaiteke... batez ere horretarako behar duguna oso eskueran dugulako".



### Plan de choque para impulsar el uso de la bicicleta

Red de Ciudades por la Bicicleta (RCxB). 2020ko martxoa

Eskuorri honetan, egungo osasun- eta gizarte-krisian kokatuta bizikleta hauspotzeko RCxBk proposatzen dituen 12 neurri bistartzen dira.



### Medidas para caminar en el COVID

A PIE eta Federación Regional de Asociaciones Vecinales de Madrid (FRAVM). 2020ko apirila

Konfinamenduak iraun bitartean eta gero etorriko den aldiari egiteko jardun-proposamenak, Madrillgo A Pie oinezkoen elkarteak eta Auzotarren Elkartearen Federazioak administrazio publikoei hala exijituta. Helburua da oinezkoen joan-etorri seguruak bermatzea, ez bakarrik kutsatzeari begira, baizik eta bide-segurtasunari begira ere, behatu baita ibilgailuen trafikoa gutxitzeak motordun ibilgailuen abiadura handiagoa ere badakarrela.

Dokumentuak beste hiri batzuetan oinezko joan-etorriak hobetzeko aplikatutako neurrien adibideak biltzen ditu.

### En Bici contra COVID-19

ConBici. 2020ko martxoa

ConBici Espainiako Estatuko bizikleta-erakundearen koordinakundea da, 60 herri-elkartetik gora biltzen dituen, eta adierazpen bat atera du. Bertan, Covid-19 pandemiatik sortutako osasun-alertari buruz hartu duen jarrera eta hartu beharreko neurrien proposamena azaltzen dira, hastapenetan bizikleta kriminalizatzeko gizartearen eta hedabideetan zabalduko giroaren aurrean.

ConBicik gomendatua.

### Bicicleta y COVID-19. Reflexiones, benchmarking y propuestas

Red de Ciudades por la Bicicleta (RCxB). 2020ko apirila

Osasun- eta gizarte-krisiaren testuinguruan bizikletak erabiltzeak dituen abantailak azaltzeaz gain, idazlanak bizikleten hiri-barneko erabilera erraztu eta sustatzeko munduko askotariko tokietan hartutako neurrien 50 adibidetik gora biltzen ditu. Bizikleta-sarearen zabalpen taktikoaren adibide ugari biltzen dira, baita semaforoak koordinatzeko beste neurri batzuk edo bizikleta-konexio eksklusiboak ere, bizikleta publikoko zerbitzuak egokitzeko esperientziak, bizikletak saldu edo alokatzeko diru-laguntzen adibideak, edo bestelako pizgarri ekonomikoak eta laguntza instituzionalak. Bizikletarako pandemiaren testuinguruan eta geroago ezartzeko, RCxBk proposatzen dituen 15 neurri ere biltzen ditu.

### Recomendaciones de ConBici a las administraciones públicas para la ejecución de corredores ciclistas durante la crisis sanitaria provocada por Covid-19, más allá del estado de alarma

ConBici. 2020ko apirila

ConBicik pertsona adituen talde batekin lankidetzan ondutako dokumentua da, eta gomendio batzuk azaltzen ditu bizikleta-korridoreak martxan jartzeko, uneko bizikleta-bideen sareak zabaltzeko edo/eta ahalmen handiko bizikleta-eremuak seinalatzeko.

ConBicik gomendatua.

**Ciclovías temporales.**  
**Plan de Contingencia**  
**por Covid-19 para la Ciudad**  
**de México**



**Mexiko Hiriko bizikletaren alkatetza.**  
2020ko martxo

Txostenak nabarmentzen du aldi baterako bizikleta-bideak ezinbestekoak direla talde-kutsatze etapa baten kontingentzia-plan batean, bizikleta baita garraio-akera higienikoenetako bat birusa ez kutsatzeko, norbanakoen garraio-bitartekoa denez. Gainera, mugikortasun-modu aktiboa da, nork bere osasuna edo besteeen kolokan jarri gabe. Proposamenen, aurreikusten da eskuineko erreian aldi baterako bizikleta-bideak ezartzea, horietan bizikletek zein gurgil-ohol elektrikoek zirkulatzeko, 7:00etatik 21:00etara, 131 km-ko sarean. Ezarpenerako bigarren fase batean, aldi baterako bizikleta-bide horiek 186 km-raino luza daitezke.



**CICLOSFERA#32**



Ciclosferaren udako zenbakia eskuera dugu jada Ziklotekan, eta Interneten ere irakur daiteke. Ciclosferaren 32 zenbakian elkarrizketa egin zaie Karlos Arguiñanori, Alejandro Amenabarri eta Dervla Murphy irlandarrari, funtsezko pertsonaia zikloturismoaren alorrean. Dani Cabezasek pandemian neurri ausartak hartu dituzten munduko hiriei egiten die erreferentzia; zenbaki honetako beste artikulua interesgarriena artean, Wuhan hiria eta, koronabirusaren ondoren, bertan pedalei nola eragiten zaien ere erakusten zaigu.



**Covid-19ari aurre egiteko**  
**Euskadiko hiri txirrindularien**  
**elkarleen proposamenak**



**Kalapie, Biziz bizi, Bizikleteroak,**  
**Gurgil Artea, Balazta.** 2020ko apirila

Euskal Autonomia Erkidegoko hiri barruko txirrindulari-taldeek dokumentua, administrazio publikoari zuzendua. Bertan, oinarriko neurri batzuk aletzen dira herri-tarrek osasun- eta bide-segurtasun handieneko bermeak dituen egonaldi eta mugikortasuna izan ditzaten. Erreklamatu dute hiri barruko mugikortasunean osasun-larrialdiarekin bat datozen ahaleginak eta aurrekontu-partidak prezaz bideratzeko.  
*ConBicik gomendatua.*



**Aménagements cyclables**  
**provisoirs: tester pour**  
**aménager durablement**



**Centre d'études et d'expertise sur les**  
**risques, l'environnement, la mobilité**  
**et l'aménagement (Cerema).** 2020

Hirian esku hartzeko gomendio teknikoaren dokumentua da, neurri errazak eta, dagokionean, aldi baterakoak, ezartzen laguntzeko; era horretan, txirrindularitza efiziente eta segururako baldintzak jarri nahi dira pandemiaren testuinguruan.



**Logroño, calles abiertas.**  
**Estrategia para la movilidad**  
**activa en Logroño. COVID-19**



**Logroño-ko udala.** 2020ko martxo

Dokumentuak proposamen-sorta bat lantzen du, hiriko kaleak behar bezala egokituz mugikortasun jasagarri, seguru eta osasungarria izatera heltzeko. Helburu sorta bat eta esku hartzeko irizpide batzuk ezartzeaz gain, osasun-larrialdien mugikortasun aktiborako kale irekien estrategia esku-hartzerako sei programaz osatzen da, eta dokumentuak hori lantzen du. Lan horretan, oinezkoen eta bizikleten ibilbideak zehazten dira, eta hobetzeko proposamenak adierazten, hainbat inguruetan, adibidez, parke, ikastetxe, osasun-zentro eta beste ekipamendu batzuetan. Garraio publikoari laguntzeko neurriak eta araubiderako proposamenak ere adierazten dira.

**Aménagements**  
**provisoirs pour les piétons:**  
**tester pour aménager**  
**durablement**



**Centre d'études et d'expertise sur les**  
**risques, l'environnement, la mobilité**  
**et l'aménagement (Cerema).** 2020

Deskonfinamenduak urrutze fisikoren errespetua ezarri du espazio publikoetan. Askotariko gizarte- eta instituzio-eragileek ondutako gida honetan, espazio publikoko esku-hartze taktikorako aukerak biltzen dira, oinezko joan-etorri seguruak errazteko.

## ALBISTEAK

### ConBicik bizikleta bidezko turismoa proposatzen du uda honetarako



ConBicik komunikazio-kanpaina bat jarri du abian uda honetan bizikleta bidezko bidaiak hauspotzeko. #TurismoenBici du goiburua, eta xeheki ematen ditu aditzera zikloturismoa praktikatzeko zikloturismoko hainbat ibilbide eta aholkuak. Bizikleta bidezko bidaiak aukera ederra da uda honetarako. Bizikleta aliatu bikaina da Covid-19aren zabalpena geldiarazteko. Haren bidez mugituz, segurtasun-distantzia gorde daiteke pertsonen artean, eta bitarteko efizientea da, gainera, norbere garraiorako.



### Nazioarteko Lehen ONLINE Kongresua. "Munduko Bizikletaren Eguna"



Ekainaren 3tik 7ra, topaketa bat izan zen internetez, eta 50 hitzaldi eskusibo baino gehiago eman ziren, arlo eta espezialitate desberdinetako profesionalen eskutik, hiri barruko egungo mugikortasunaren, hiriko bide-segurtasunaren, bizikleta erabiltzen hastearen problematikak eta hirien eraldaketa ja-sangarri baterako bideak ulertzeko.



### Teresa Ribera ministroak osasun-krisiaren deskonfinamenduan udalerriek bizikleta bultzatzeko neurriak hartzeko eskatu zion FEMP Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari



Teresa Ribera gobernuko laugarren presidenteorde eta Trantsizio Ekologiko eta Demografia Erronkako ministroak gutun irekia bidali zion FEMPi joan den apirilaren 28an; bertan, Espainiako tokiko erakundeek eskatu zien bizikletaren erabilerara sustatzeko, garraio garbi eta ja-sangarrirako bestelako aukera bat baita Covid-19ak sortutako osasun-krisitik pixkanaka irteteko.

### 2020 EuroVelo prentsa-kita. Europako Txirrindularien Federazioak (ECFk) landu eta koordinatutako informazio-oinarria



Internet bidez eskura daitezkeen agiri honek ikuspegi orokor bat ematen du kontinente osoa gurutzatu eta konektatzen duen 16 EuroVelo bideko sareaz, baita EuroVeloren estatuetako zentro eta koordinatzaileei buruzko informazioa ere. Funtsezko datu eta zenbakiak ere biltzen ditu Europako zikloturismoari eta EuroVelo sarean jada indarrean den zatiaren egungo egoerari buruz, 43.000 km ingurukoa, pentsatzen denez. Informazio hori infografien bidez bildu da, deskargatu eta partekatzeko.



### Lehen lerroko bizilogistika #Covid19an



Salgaien banaketa hazi besterik ez da egin azken urteotan. Krisialdian, ezinbesteko zerbitzu bihurtu da saltoki txikientzat eta herritarrentzat. Asociación Ciclogisticak askotariko beharrianak eta ekintzak identifikatu ditu sektore hau hauspotzeko.



### Jendetzak parte hartu du Bizikletaren aldeko Hirien Sarearen (RCxB) historiako lehen web-mintegian



RCxBren historiako lehen web-mintegiak parte-hartze oso handia izan du, ia 300 pertsona bertaratu baitira ia bi orduz konektatuta egoenez. Denbora horretan, aurkezpenak eta mahai-inguruak egin ziren hala estatuko nola hiri eta lurraldeetako araudiari buruz. Interneteko jardunaldi horretan dialogo eta elkarriketarako tarteak izan zen, elkarteko kideentzat interes gorenekoak diren gaien inguruan. Elkar-teea 125 erakundek osatzen dute egun, herrialde osoko 500 udalerririk ordezkatzen dituztenak.



## AGENDA

### CONAMA 2020. BIRKONEKTATZEN

Azaroaren 23-26a.

Conaman, Ingurumenaren Kongresu Nazionalan, egungo egoerara egokitzeko lanean ari dira. Kongresuko 2. Ardatza Mugikortasuna da, eta lantaldeetako batek oinezkoen zein txirrindularien joan-etorria sustatzeko mugikortasun-politikak aztertuko ditu.



### Ljubljana Vело-City 2020 konferentzia atzeratu dute

Velo-Cityren urteko konferentzia munduko erreferentzia bat da hiriko ziklismoaren sektorean. Europako Txirrindularien Federazioak (ECFK) antolatuta, konferentziak askotariko txirrindularitza-arlo biltzen ditu: hari lotutako azpiegiturak, berrikuntzak, segurtasuna eta abar, baita eremu horietan gertatzen ari diren gizarte- eta kultura-aldaketan berri eman ere. 2020ko edizioa Ljubljanan (Eslovenia) egitekoa zen 2020ko irailean, baina 2022ko ekainera arte atzeratu da. Velo-city 2021 Lisboa konferentziak bere horretan jarraitzen du, 2021eko ekainaren 1-4 bitartean izango da.



### Europako Mugikortasunaren Astea 2020. Emisiorik gabeko mugikortasunaren alde

Irailaren 16-22a.

Europako Batzordeak aurtengo kanpainarako aukeratutako leloa "Emisiorik gabeko mugikortasunaren alde" da. Gai horrek karbono emisioetan 2050. urterako neutralak izatera heltzeko helburu ambiziozua jartzen du agerian, Europako Itun Berdean zehaztutakoa. Goiburuak zero emisioko garraio-sistemen irisgarritasunaren garrantzia nabarmendu nahi du, eta pertsona guztientzat inklusiboa den sistema sustatu.

## SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD

16-22 DE SEPTIEMBRE





## Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunen espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak biltzen ditugu, baina, horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektronikoko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

2020ko uztaila eta abuztuan, Zikloteka online egongo da erabilgarri. Dokumentu fisikoak aldez aurretik eskatu beharko dira telefonoz edo posta elektronikoz, eta jasotzeko hitzordua jarriko da. Irailetik aurrera ohiko ordutegiari ekingo zaio berriro.

Zikloteka. Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa  
Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia  
943 45 35 26 | zikloteka@donostia.eus | cristinaenea.eus/zikloteka

Ordutegia  
Astelehenetik larunbatera: 10:30 - 14:00 / 15:00 - 18:30  
Igande eta jai-egunak: 10:30 - 14:00



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro